



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Higienea eta autokontrola

Europa-mailan, erreferentziazko araudia

183/2005 Erregelamendua (EB)

da; haren bidez ezartzen dira pentsuen inguruko higiene-betekizunak.

Estatu-mailan, araudi hauek dira erreferentziazkoak:

Urriaren 6ko 1144/2006 Errege Dekretua

, haren bidez arautzen dira komunitateko araudia aplikatzeko betekizunak, pentsuen higienearen inguruan.

Maiatzaren 16ko 821/2008 Errege Dekretua

, haren bidez arautzen dira komunitateko araudia aplikatzeko betekizunak, pentsuen higienearen inguruan, eta animalien elikaduraren sektoreko saltokien erregistro nagusia ezartzen da. Erreferentziazko araudia da.

Higiene-betekizunak

Erregistro eta baimena

Autokontrola

183/2005 Erregelamendura sarrera

Helburu nagusia da giza osasunaren babes-maila handia lortzea, baita animalien eta ingurumenaren osasunarena ere.

Araudiaren helburua da pentsuen segurtasuna ziurtatuta egotea pentsuen eta elikagaien segurtasunean eragina izan dezaketan etapa guztietan, lehen mailako ekoizpena barne.

Gainera, erantzukizun- eta betekizun-sistema bat ezartzen du, ziurtatzeko pentsuak seguruak direla, eta kalitate onekoak, animalien elikadura-kate osoan trazabilitatea ziurtatuz.

Definizioak,

178/2002 Erregelamenduaren (EB)

arabera:

“

PENTSUA

”: edozein substantzia edo produktu (gehigarriak barne), animaliak ahoz elikatzeko, erabat edo zati batean aldatu direnak edo aldatu ez direnak.

“P

ENTSU ENPRESA

”: edozein enpresa publiko edo pribatu, irabazi asmoz, edo irabazi asmorik gabe, pentsuak ekoizteko, fabrikatzeko, eraldatzeko, biltegitratzeko, garraiatzeko edo banatzeko edozein jarduera egiten duena; bere ustiategiko animaliak elikatzeko pentsuak ekoizten, eraldatzen edo biltegitratzen dituztenak ere aintzat hartzen dira.

Aplikazio-eremua

Pentsu-ustiatzaileak, etapa guztietan

Animalientzako elikadura

Inportazioa/esportazioa

Salbuespenak:

Norbere kontsumorako edo elikagaiak ekoizteko erabiliko ez diren animalientzako etxeko pentsu-ekoizpena.

Norbere kontsumorako, edo kopuru txiki-txiki salmenta zuzenerako edo tokiko txikizkako salmentarako animalientzako elikadura.

Giza kontsumorako ez diren animalien elikadura.

Ekoizleak abeltzainari pentsuen lehen mailako ekoizpeneko kopuru txikiak zuzenean hornitzea.

Laguntzako animalientzako pentsuen txikizkako salmenta.

Higiene-betekizunak

ANIMALIEN ELIKAKATEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILE GUZTIENTZAT

, hauen inguruko betekizunak ezartzen dira:

Higienea

Erregistroak/trazabilitatea

Baimenak

LEHEN MAILAKO EKOIZPENERAKO BETEBEHARRAK

183/2005 Erregelamenduaren honako eranskin

hauek bete beharko dituzt

e:

I. eranskina:

Ekoizpen-tokian lehengaiak garraiatzea, biltegitratzea eta maneiatzea.

Ekoizpen-tokitik saltoki batera garraiatzea.

Gehigarriak gabeko pentsuen nahasketa (siloraketa kenduta). Ustiategian bakarrik erabiltzeko.

II. Eranskina betetzea, ustiategian gehigarriak edo aurre-nahasketak erabiltzen badira pentsuak nahasteko, ustiategian bakarrik erabiltzeko (siloraketa-gehigarriak kenduta).

III. eranskina. Praktika onak animalien elikaduran

Bazkatzea

Ukuiluak eta elikadura-ekipamenduak

Elikadura (biltegitratzea eta banaketa)

Pentsua

Ura

Langileak

Beste betebeharrak batzuk

Irizpide mikrobiologikoak eta helburu espezifikoak betetzea.

Erregistratutako edo baimendutako saltokietako pentsuak kontsumitzea

ABELTZAINZA-USTIATEGIETAN PENTSUAK MANEIAITZEARI BURUZKO INFOGRAFIA

LEHEN MAILAKO EKOIZPENEAN EDO HARI LOTUTAKO OPERAZIOETAN JARDUTEN EZ DUTEN OPERATZAILEENTZAKO BETEBEHARRAK

183/2005 Erregelamenduaren II. Eranskina betetzea:

Instalazioak eta ekipamenduak

Langileak

Ekoizpena

Kalitate-kontrola

Biltegitratzea eta garraioa

Erregistroak eta trazabilitatea

Erreklamazioak eta produktuak kentzea

APPCC-HACCPen oinarrietan (kontrolerako puntu kritikoak eta arriskuak analizatzeko sistema) funtsatutako prozedura idatzi etengabe bat edo gehiago aplikatzea eta mantentzea.

Beste betebeharrak batzuk

Irizpide mikrobiologikoak eta helburu espezifikoak betetzea.

Erregistratutako edo baimendutako saltokietako pentsuak kontsumitzea

Pentsuen fabrikazioko higienari buruzko betekizunen inguruko triptikoa

Pentsuen Garraioko higienari buruzko informazio orria

Erregistroa eta baimena

Animalien elikadurako sektoreko ustiatzaileek (pentsuen lehen mailako ekoizpeneko arduradunak barne) agintari eskudunen erregistroan izena eman beharko dute. Erakunde eskudunari informazio eguneratua eman beharko diote, eta laguntzeko konpromisoa hartu, kontrolik baldin badago.

Gainera, pentsu-enpresetako ustiatzaileek ziurtatuko dute beren kontrolpeko saltokiek agintari eskudunak emandako baimen bat dutela, eta ez dute baimenik gabe jardungo. EBko herrialde bakoitzak baimendutako saltokien izen-emateen zerrenda bat eduki beharko du. Saltoki batek bere jarduerari aplikatu beharreko baldintzak betetzei utzi badio, onespena aldi baterako eten ahal izango da, edo kendu.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikagaien Trazabilitate eta Segurtasun Zerbitzua

da Animalien elikatze eragileen erregistroa kudeatzearen arduraduna.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko

abenduaren 23ko 17/2008 Legean

xedatutakoaren arabera, gehigarriak, aurre-nahasketak edo pentsu konposatuak egiten edota merkaturatzen dituzten animalien elikagaigintzako enpresek Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro egokian izena emanda egon edo dagokien baimena eduki behar dute jardunean hasi aurretik beren jarduera gauzatu ahal izateko.

Lotura interesgarriak

Euskal Herriko Animalien Elikatze Sektoreko Eragileen Zerrenda

EAEn Pentsu-enpresak baimentzeko eta erregistratzeko prozeduraren gidaliburua

Baimena emateko edo erregistroan inskribatzeko eskaera, pentsuen higiene-baldintzak finkatzen dituen 183/2005 (EE) Erregelamenduaren arabera

Autokontrola

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 183/2005 Erregelamenduaren bidez pentsuen higiene-baldintzak ezarri ziren. Horrela, Erregelamendu horrek adierazten du pentsu-enpresek betebeharra dutela APPCCren oinarrietan funtsatutako prozedurak martxan jarri, aplikatu eta mantentzeko.

Adierazten da, APPCCren oinarriak pentsuen ekoizpenera aplikatzean, kontuan hartu behar direla

Codex Alimentarius

-ean ezarritako oinarriak.



The image shows the cover of a guide titled "GUÍA de APOYO para la IMPLANTACIÓN de SISTEMAS APPCC en las FÁBRICAS de PIENSO de la CAPV". The text is centered and uses a mix of bold and regular fonts. The background features a network diagram with nodes and connecting lines, some in red and some in grey.

Nola garatu APPCC sistema bat pentsu fabrika batean?

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

berri@elika.eus